

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko uztailak 3, 156. zenbakia


ARKOk argitaratua Udalaren laguntzarekin



**AXUN
ETXAGIBEL**
Garagartzako
brasildarraren
gogoetak



Mendia, berez garbia



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

E

ntsaiotan behin eta berriz landutako pausu eta mugimenduak, entsaialekuko lau hornen babesak ematen duen lasaitasunean ia berez ateratzen diren dantzak, baina abarkak, gona gorribeltzak eta buruko zapiak jantzitakoan ikaragarri zail bihurtzen direnak. Arrazoi osoa du Euskal Herriak inoiz izan den harrijasotzailerik bikainenak, "Gimnasioan edozein pisu jasota



Karmelo

ere, benetan balio duena plazan egiten den markada. Etxean egindakoak plazan ez du balio".



ARRASATEKO UDALA

UEUko ikastaroetan parte hartzeko bekak

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) udako ikastaroetan parte hartu nahi duten arrasatearrei. Ikastaroak Iruñean izango dira uztailaren 20tik 30era.

Eskaerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanca Jauregi,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,
Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Botereak ase ez, ito egiten gaitu

Eta irakurle arruntari, lehenik, borobildu egin zitaizkion begiak, gero biribildu, eta azkenik lausotu.

"Segurtasun dispositibo handia jarri dute: 35 mila soldadu. Miseria desagertu da bapatean eskenatokitik. Non dira kalean nonahi ikusten ziren abandonatu-tako haurrak? Non eskaleak? Non trabestiak? Kaleei aurpegia garbitu diete, behin-behineko maskara jarri. Caesar Park hotelak, berriz, serbiletak, masaje-rako toalak eta bost mila saku te ekarri ditu Tokio puntatik. Kiichi Miyasawari bere egoitza eguneko 2.000 dolare kostako zaio. Copacabana hotelak, ezin atzean gelditu eta, Husein erregeari behar den bezalako harrera egin ahal izateko, tapete persiarrak lortu ditu Ekialde urrunetik ekarrita. Canadiarrek, ordea, mesfidantza handia agertu dute herri horretako medikuntzaren aurrean, eta euren klinika propioa muntatu dute Hotel Nacionaleko apartamentu batean.

Sheraton hotelak ere nahiko lan izan du Thaiandiako Chulabhorn printzesaren eskakizunak betetzen,..."

Gure irakurle arruntari honelako pertsonak munduko arazoak konpontze-ko intentzio garbia zeukatela pentsatzea zaila baino ezinezkoa egiten zitaion, zeren eta bere amak, txiki-txikitandik, eskuzabala izateko nor bere buruarekin zuhurra eta zuzena izan behar zela esaten bait zion. Eta berak, amak erakutsitakoa, ikasia zuen eta ondo ikasia, gainera.

Eta... egunkariko testuan idatzita ez bazegoen ere, gure irakurle arruntak, bere begi arruntekin, begi tristeeekin, irakurri ahal izan zuen bere pentsamentu propioan poetak aspaldian maitasunari egokitutako hitzok:

Botereak ase ez, ito egiten gaitu!

... eta azkenean, hasitako orok bukakera duenez, Rioko bilkura ere amaitu egin zen.

MATILDE SAINZ OSINAGA

Memesa
79 42 22



**Zatoz gure
gazte moda
ezagutzera**

Italora Lizentziatua, 5
Tfnoa: 77 00 81
ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



HIRE

Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



DANKAIR'T

Estetika eta ileapaintzaile
Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**MUSAKOLA
OSTATUA**

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

EUEren eskerrona

Arrasateko Euskal Ezkerreko udal batzordeak Gipuzkoako Batzar Orokorretako Euskal Ezkerreko Taldeari zein Eusko Alkartasuna eta Herri Batasuneko taldeei bere eskerrona agertu nahi die Arrasateko Eskola Politeknikoak zuzentzen duen proiektuari Gipuzkoako Aurrekontutan agertutako 100 milioiko diru laguntzagatik, zeinaren bitartez aurki gure herrian goi mailako ingenieritza ikasketak egitea posible izango baita.

Aipatutako eskerrona gure bailadako giza eta ekonomi premi eta erronkak kontutan hartu eta, aldi berean, berauetan goi mailako ingenieritza ikasketak lortzeak, publikoki zein pertsonalki, ezin dezaken begibistako eragina ulertu eta Eskola Politeknikoaren proiektuari bultzatzen EUEko, EA nahiz HBko Taldeek agertutako grinan oinarritzen da.

Azkenik, Arrasateko Euskal Ezkerreko udal batzordeak Eskola Politeknikoko ikasleak nahiz ardura-dunak animatu nahi lituzke bere proiektua laster batean bete dezaten. Aldi berean, Euskal Ezkerreko, Euskal Alkartasuna zein Herri Batasuneko Batzar Orokorretako Taldeei, gipuzkoarron onerako, elkar hartze eta lanean jarraitu dezatela erregutzen die.

ARRASATEKO EUSKAL EZKERRA

Parapentezale arra

ATBk San Juanetan egin duen programa berezia ikusten nengoela, poztasunak hartu ninduen elkarrizketatuak neska - mutiko parapentezale bi zirela ikusterakoan.


Neska bat han ikusteak pentsaerazi zidan gero eta gutxiago falta zaigula "gizakumeen alturara" iristeko.

Baina hara non nire poztasunaren barruan nengoela, arrak, emearen parapentezaletasun hau justifikatzen duen esanez... "poco femenina" zela.

Baina aizak artaburu, galdu egiten al da feminitatea parapentez salto egin ezker? Edo "gizontxoen" neurrira egina dago kirol berri hau?

Animo neskak, jaramonik ez halakoei!

Nerea Saizar



**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46




Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Mendian zer egiten duzu zaborrarekin?




Miren Gonzalez
(Ikaslea)

Poltsa baten sartu eta etxera ekarri. Zakarrontzia badago, bertan utzi.



Haritz Inurrategi
(Ikaslea)

Etxera ekartzen dut. Poltsa baten sartu eta etxean botatzen dut. Baina orokorrean jendeak bertan uzten ditu zaborrak.



Jose Sande
(Langilea)

Normalean bertan egoten diren bidoietara botatzen dut. Gainera, jendea kontzientziatu dela ematen du, nahiko zainduta ikusten dira eta.



Abelina Rodriguez
(Etxekoandrea)

Ez naiz asko joaten mendira baina joaten naizenean poltsa baten sartu eta kotxean etxera ekartzen dut. Kanean ere gauza bera egiten dut, edarien latekin eta abar.



Loli Barberena
(Langilea)

Poltsa batean bildu, gorde eta etxera ekarri. Bertan botatzeko tokia badago, bertan botatzen dut. Nire ustez gehienek ez dute mendia oso ondo zaintzen.



Iñaki Egia
(Ikaslea)

Poltsa baten sartu eta etxean bota. Gehienek bertan uzten dituzte, beharbada poltsetan sartuta, baina bertan.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



3

• • •

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "La venganza de los vikingos" (7-9.30).
- Pablo Urangaren erakusketa, Arrasate Pasealekuko erakustokian, hilaren 17a arte ikusgai.
- Hitzaldia eta Bideo-emanaldia: "Indigenismoaren pentsaerapolitikoak", Wankar Ramiro Reinagak emana eta AEDk antolatuta, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Estremadurako Etxearen II. Kultur Astea: Antzerkia, "Los hijos del labriego" Musakolako Eskolan, arratsaldeko 7etan.
- Kontzertua: *MCD, Reincidentes, Parabellum* eta *Heriotza* taldeak. Monterronen, gaueko 10.30etan, Jarraik antolatuta.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaez: Mozos, Bergara.

4

• • •

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Tomates verdes fritos" (5-7.30-10)
- Mendi-garbiketa, irteera goizeko 8.30etan Besaide Mendizale Elkarteak.

6

• • •

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Tomates verdes fritos" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaez: Puy, Bergara.

7

• • •

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Tomates verdes fritos" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaez: Guallar, Bergara.

8

• • •

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaez: Estella, Bergara.

9

• • •

OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaez: Mozos, Bergara.

Deialdia

• Parajeen garbiketa

Besaide Mendizale elkar-teak, bihar inguruko parajeen garbiketa egiteko deia zabaldu du. Inguruan dauden zabor guztiak batu eta kalera ekarriko dira. Goizeko 8.30etan elkartuko dira mendizaleak Besaideko egoitzan.

Liburuak

• Xirrixta

Xirrixta haurrentzat atera berri den hilabetekaria dugu. Haur eta gurasoen arteko lokarri bat izan nahi du eta lortu nahi den helburua haurrentzat euskarazko prentsa sortzea izan da. Proiektu gisa orain dela zenbait urte sortu zuen Xuberoako Uhaintza elkarteak eta orain Toulouseko hiriko Milan argita-



letxeak plazaratu du. Xirrixta liburuaren izena izateaz gain, pertsonaia nagusiaren izena ere bada. Haur ahula izan arren munduan zehar lehen urratsak ematen ausartzen da. Handitza besterik ez du eskatzen! Zure harpidetza gorde nahi baduzu, bidali itzazu zure datuak helbide honetara: Euskal Kultur Erakundea LOTA-B.P. 27-64480 Uztaritze- Ustaritz.

Hitzaldiak

• Indigenismoa

Gaur ostirala arratsaldeko



Extremadura eta Andaluziako jaiak

Corazón de Encina eta Al-Andalus-ek antolatuta

Datorren larunbat eta igandean jarraituko dute Extremadurako elkarteak antolatu duen Bigarren Kultur Asteko ospakizunek. Bihar goizeko 10etan kirol froga desberdinak izango dira. Ondoren eguerdiko 12etan pailazoen jaialdia alaituko dute eta arratsaldean jarraituko dute ekintzek: 5etan folklore jaialdia izango da talde desberdinekin eta gaueko 9etan bazkideen afaria "Orkestra Tarantela" k girotuta.

Igandean, eguerdiko 3etan Kuartrola txapelketa ospatuko da Elkartearen tabernan. Arratsaldeko 6etan astean zehar izan diren ekintza guztien sariak banatuko dira. Ekintza hauetaz gain, astean zehar erakusketa bat egongo da Santa Marinar argazki desberdinekin.

Horretaz gain, larunbatean Al Andalus-ekoek Rocioko erromeria ospatuko dute. Ostiralean amabirginaren aldairearen inaugurapena egin ondoren, larunbatean goizeko 10etan hasiko da karrozen ibilaldia. 12etan meza izango da San Esteban parrokiaren eta Udalara bidean jarriko dira. Egunean zehar izango dira beste ekintza batzuk bere Udala auzoan: herri bazkaria, dantzaldia eta abar.

7etan Monterongo kultur etxean indigenismoaren pentsaera politikoari buruzko hitzaldia izango da Wandar, Ramiro Reinagaren eskutik. Bi gai aztertuko dira: V. Mendeurrenari buruzko kritika eta lurra eta hizkuntza kontzeptuak indianismoaren kosmologian. Hitzaldiaren ondoren bideoa ere ikusi ahal izango da, "El final del silencio" izenekoa eta Jabier Zeláiaundik zuzenduta.

Lehiaketa

• Margo lehiaketa

Igandean ospatuko da Aretxabaletan 6. margo lehiaketa. teknika librea izango da eta gaia Aretxabaleta eta bere ingurua. Epaimahaiak arratsaldeko 7etan emango du erabakia. Lehengo saria 35.000 eta trofeoa, bigarrena 28.000 eta trofeoa eta hirugarrena 20.000 eta trofeoa

izango da. Lehen postuetan sartu ez diren Atxabaltarrentzat ere izango dira sariak: 16.000, 8.000, 5.000 eta trofeoa. Lan guztiakin erakusketa bat zabalduko da uztailaren 6tik 22ra.

Bilerak

• Almen K.E.

Gaur arratsaldeko 7etan batzar orokorra egingo du Almen kirol elkarteak. Gai ordenaren barruan, bukatu den ikasturteko ekintzen txostena eta balantze ekonomikoa, datorren urterako aurrekontua eta zuzendaritza batzordearen berriztapena ikutzea espero da.

Jaiak

• Antzerkia

Bihar larunbata arratsaldeko 7.30etan Makatzeneko pilotalekuan antzerkia izango da. Aurkeztuko duten antzezlanak "delirium" izango da, Bakereke taldearen eskutik. Sarreia doain izango da hurbiltzen diren guztientzat.

• Kontzertua

Jarraik kontzertu bat antolatu du Monterronen biharko. Errepresioaren aurkako kontzertua deitu honetan, MCD, Paraberum, Heriotza eta Reincidentes taldeak hartuko dute parte. Sarrerak 500 pezeta.



“Gutun honen bidez nire eskerrik beroenak adierazi nahi nizkieke Ertzantza, Gurutze Gorria eta Arrasateko Eskualde Ospitaleko sendagileei, eta ekainaren 13an arratsaldeko 2.30etan, Aretxabaletako errektan hotz eta euri zaparrada handi baten erdian autoaren txapa pilatik nire emaztea eta semea atera zituzteei”.

(Santiago Chaparro arrasatearrak
Egin egunkarian. 1992-6-18)

“Buesa jaunak ez du inor engainatu —gai honetan behintzat— eta enpresa nagusiaren (PSOEn) sukurtsal batengandik (PSE-PSOEngandik) espero zitekeen politika ari da ezartzen. Buesa jauna libre da bere politika ezartzen duen esparruan dauden berezitasunen abstrakzioa egiteko. Eskubide gutzia du sare publiko eta pribatuan sinplifikatzeko. Libre da bere erantzukizuna publikora mugatzen dela pentsatzeko. Libre da ingelesez pentsatzeko ere.

Baina Eusko Jaurlaritzako Lehendakari bat, gobernu-kide nagusiak abertzale izena hartzen duena, ez da hain askea, Gobernuaren ekintzaren azken erantzukizuna (teorikoki behintzat) bere gain duenez.

Ardanza Lehendakariak eta PNVk euren erantzukizunak hartzen ez badituzte, alderdi horrek hautesle nazionalistei egindako beste estafa baten aurrean egongo ginatke, baina gainera federazioa ere esigitze-ra ausartzen ez bada... hori ere ez ote da gari garbia?”

(Mariano Alvarez Dorronsoro arrasatearrak
El Correoko gutunetan)



Extremadurako jendeen etorrera igartzen da oraindik Arrasaten?

Ez, azken urtetan, azken 15 urtetan behintzat geldiuene bat igartzen da. Ez da jende kopuru handirik etortzen eta al-diz jubilatuegan ikusten da Extremadurara joateko joera, izan ere bertan jaio eta bertan dituzte euren etxe eta sustraiak. Horren oinarrian faktore batzuk ikusten dira eta garrantzitsuena da lehen Euskadin zeuden baldintzak, gaur egun ez direla ikusten. Hau da, gerra bukatu ondoren bizitzeko baldintza hobegoak zeudelako etortzen zen jendea, Euskadi industri gune finkatua zelako, Extremadurako jendeen abentura izpirituagatik, langile merkeenak kanpotarrak ziren eta kontratatzeke erraztasunak zeudelako eta azken finean bizi izateko baldintza hobek bilatzeko.

Lehengo etorri zirenek ez zuten familia osoa ekarri, eurak bakarrik etortzen ziren eta hemengo egoera ezagutu ondoren, familia ekarri zuten.

Hasieran aipatutako geldiuene honen arrazioak aurrekoaren kontrakoak dira: hemengo egoera aldatuz joan da eta gainera Extremadurako gobernuak ahalegin guztiak jarri ditu martxan bertako jendea erakartzeko eta guzti horren ondorioz jende gutxi irtetzen da, gero eta gutxiago.

Horretaz gain, Extremaduran jaio eta hemen bizi direnek hango sustraiak mantentzea nahi izan dute, hau da, euren lurreekiko harremana ez dute galtzen, noizean behin, oportetan bertara joaten direlako.

ANGEL PUERTO,
CORAZÓN DE ENCINA TALDEKOA.

BIONAS

Zurgin Kantoi, 2^a Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO eta TURISMO-GIA ESKOLA

centers

Pasajes de San Pedro, 1
GASTEIZ
Tfnoa: 945 - **28 35 34**

Bergara

• San Pedro eta San Martzial jaiak

Asteburu honetan ospatuko dira San Pedro eta San Martzial jaiak Bergaran. Ostiralean 10etan Bergarako orfeoia Seminarioko elizan kontzertua emango du. Igandean goizeko 7.30etan Santa Marinatik San Martzialerako igoera izango da letania errezatuz. 9.15etan Alborada izango da eta Gazteizko dultzainero, Zumarragako trikitilari, eta *Los Incansables* txarangarekin aterako da Santa Marinatik gurdia San Marzailgo ermitaratz. Goizeko 11etan meza izango da eta 12etan dantza saioak. Eguerdian bertso saioa eta beste eintaldi batzuk izango dira.



Aramaio

• San Martin jaiak

Gaur hasten dira Aramaion eta datorren astelehenera arte luzatuko San Martin jaiak. Arratsaldeko 7etan jaiei hasiera emateko txupinazo eta txistulariak izango dira. 11etan "Eguzki" taldearekin erromeria izango da Herriko Plazan. Era berean Polikiroldegian rock jaialdia izango da *Platero y Tu*, *Zakarrak* eta *Xementerio* taldeekin. Larunbatean arratsaldeko 5etan txirrindulari froga izango da eta 10etan bertso saioak izango dira, Jose Lizaso, Egaña eta Sarasua anaiekin. Ondoren Drakkar taldearekin erromeria izango da. Igandean Plato tiraketa, Herri Kirolak, "Ortzi" folk taldearen emanaldia. Eta astelehenean, jolasak eta umeen tanborrada.

Oñati

• Gazte-lekua egiteko proiektua onartu

100 miloi gastatuko ditu Oñatiko udalak gazte-lekua berritzen, aurtengo aurrekontuetan inbertsio handiena. Joan zen ostegunean onartu zen PNV eta PSOEren botuekin. Datorren gaboneterako atea zabaltzea espero ditu. Bertan 22 urtetik beharakeok izango dute sartzeko eskubidea.

• Kirol kanpaian

Zubikoa polikiroldegian uztaila eta abuztuan zehar kirol ekintza ugari izango dira: tenis-a, igeriketa, squash-a, badminton, piraguismo, rafting-a, puenting-a, eskalada, parapente eta beste hainbat. Beste zehaztasunak jakiteko dei: 78 28 46.

BEHERAPENAK!!

IBAI-ARTE merkatarien elkarteko haur eta gazteentzako jantzien saila beherapenetan dago.

Zatozte bisita egitera! Uda honetarako behar den guztia aurkituko duzue gure dendetan.

- UME
- ARIANE
- NEREA
- ARRIARAN
- HAUTXOA
- OYAL
- LASAGABASTER



□ LKSk liburuska argitaratu

LKSk Lankide Aurrezkiaren laguntzaz "Enpresa txiki eta ertainen gestio-plangintzarako eskuliburua" argitaratu du. Liburuaren aurkezpenean adierazi zenez, liburuak enpresa txiki eta ertainetan gestioa garbitasunez eramateko tresna izan nahi omen du. Horretaz gain, LKS eta LKAre helburuetariko bat enpresa txiki eta ertainei, enpresa estratokia mailan, bideak zabaltzea dela aipatu zen.

□ Fagor eta Erabide-ren arteko akordioa

Fagor Elektrotxegailuak eta Erabidek, kalitate sistemak ezartzen dituen enpresak, erosketei dagokienez kalitatearen hobekuntza garatzeko akordioa iritsi dira. Akordioaren arabera, Fagorren hornitzaileek kalitate sistemak ezarri beharko dituzte beraien enpresetan, Fagorrek erosten dituenak kalitatezko produktuak izan daitezzen era horretan konpetitiboagoak izateko. Akordioaren lehen ondorioa, hornitzaileei eskainiko zaien kalitate-zerbitzu sortu berria da.

JAIÖBERRIEI ONGIÖTORRIA

Joseba Perez Alvarez, ekainaren 23an.
Danel Aranburu Unzueta, 25ean.
Aitor Revalo Larrea, 25ean.
Izaskun Jimenez Robledo, 28an.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Francisco Gallego Blanco & Agustina Sopo Merchan. Ekainaren 20an. Elizaz.
Jesus Mari Nafarrate Iraeta & Miren Dunixe Usandizaga Zubizarreta. 27an. Zibilez.
Jose Antonio Garcia Guerrero & Izaskun Unda Urizar. 27an. Elizaz.
Pedro Barquero Cabezas & M^a Teresa Carmona Gomez. 27an. Elizaz.
Juan Francisco Fuentes Noguera & Yolanda Diaz Casas. 27an. Elizaz.
Luis Manuel Dieguez Belasco & Elena Etxabe Arana. Uztailaren 1ean. Zibilez.

Txandaka

DEBA GARAIA EUSKALDUN DEZAGUN

Badira hogei hilabete Deba Garaiko herrietan, euskaldunak euskara hutsean bizitza guztia egin ahal izatea lortzea helburu duten elkarteetako ordezkariak elkarrekin hilerio biltzen direla.



Joxemari Mujika (*)

ARRASATE PRESS-ek eta Arrasate Telebistak ederki asko eman zuten elkareratze honen berri. ARRASATE PRESS-eko 1990eko urriaren 26an argitaratutako alean esaten denez, lehen bilera AE-Dren egoitzan egin zen. Bertan honako elkarte hauek hartu zuten parte: *Laixan* oinatiarrenak, *Idolaz* antzuolarrenak, *Jardun* bergararrenak, *Beinke* aretxabaletarrenak eta Arrasate Euskaldun Dezagun-ekoak. Eskoriatzarren Astroki geroago bildu da.

Elkarte hauen egitekoa berdina da: euskaldunok bildu eta elkarlanean jarri, balio berria eman euskarari, euskal kultura zabaldu, esparru elebakarrak bideratu, euskarak behar dituen neurriak bultzatu, esigitu, presioa egin... euskaraz bizitzeko jokaerak iratzarri eta itsatsi.

Biltzen hasteko arrazoia ximplea izan zen: langintza berean gabiltzanez, elkarren berri gertutik ezagutzea.

Geroztik, bailarako bileran elkar babesten dugula ikusi da eta elkarte bakoitzak daraman ekintza aldatu beharrik gabe elkarri laguntzeko ere balio digula konturatu gara. Azken aldian berriz, elkarrekin zenbait ekintza egitera pasa gara, sentsibilizazio arloan (enpresetan *Euskalan* saillean) eta kanpo harremanetarako ekintzetan batez ere.

Orain, herri bakoitzak daraman dinamika utzi gabe bailarako kultur ekitaldi egitasmo bat bideratu daitekeela uste dugu.

Herrietako eta bailarako iharduera guztiak burutzeko beharrezko josten da elkartearen azpiegitura indartzeari bultzada on bat ematea.

Hauexek dira, labor azalduta, Deba Garaiko Euskararen Erabilera Bultzatzeko Elkartearen Elkargoaren eginkizunik berezianak.

Bailaran aztertu denez, Elkarte honek, batez ere eta bakoitzak daraman ekintza ugari egin ahal izateko egon daitezkeen diru iturriak kudeatzeko balio dezakeen itxaropena dugu.

Lan oparoa eta iraunkorra opa diogu elkarte berri honi.

(*) AEDKO LEHENDAKARIA

HUETO Doktoea

Eztarria, sudurra, belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



J. Ramón Stamendi

HARATEGIA

Ferrerias, 20 · Tel. 79 62 28
ARRASATE



UCEMek ahalegin handienak ofizinetarako materialen sektorea indartzera bideratuko ditu.

UCEMek iaz 800 milioi irabazi

Metalurgia sektoreko enpresak egoera txarrean

UCEM taldeak iazko urtean 800 milioitako irabazi garbiak izan zituen, zerga eta enpresatik kanpoko bazkideen artean 250 milioi banatu eta gero. Akzio bakoitzeko, UCEMek 40 PTA banatzeko asmoa dauka, aurreko urtean banatutakoaren erdia, industriaren egoera orokorra txarra denez, 300 milioi gorde egin dira eta.

Jesus Lobo, UCEM Taldeko Presidenteak adierazitakoaren arabera, egoera txarraren eragilerik garrantzitsuenak, taldearen metalurgia arloko enpresen arazoak izan dira. Zentzu horretan, aipatu behar da pasa den urtean "Transformados Metalicos UCEM" enpresak 256 milioi galdu zituela eta laminazio sektorea itxi behar egin zuela.

Metalurgia arloan, aurtengo urteari begira, UCEMeko presidentek lehen aipatutako "Transformados Metalicos UCEM" enpresaren gorpil eta uztaien

sektorea ixtea ere posible zela adierazi zuen. Ondorioz, ixteak langilegoan ere eragina izango luke, eta taldeko sektore hori 130 langile izatetik 70 izatera pasatuko litzateke.

Metalurgiaren egoera txarra denez, UCEMek ahalegin handienak taldeko beste sektoreak indartzen egingo ditu: ofizinetarako material eta ekipamendua, inbobiariak eta denbora libre, Donostiako Kasinoaren explotazioa eta Estatuan zehar inauguratuko diren beste instalakuntza batzurekin. UCEMeko balantzean, esandakoaz gain, aipagarri dira Norcapital enpresaren absorzioa eta egindako inbertsio finantzieroak, 3.800 milioigatik. Azkenik aipagarria da taldeko akzioek boltsan izan duten jaitsiera, Loboren esanetan, Ibercorp-en eskandaluaren ondoren korporazio izena daraman guztiak ez du konfidantzarik eskaintzen eta.

Usteak uste

Egun hauetan Nortasun Agiria delakoa Eibarren atera nahi duzuen arrasatearrek jai daukazue, nire lagun bati behintzat ezinezkoa izan zaio.

Sobrea erosi, eskatzen zituzten datuok bete, eta korreo bidali zuen. 15 egunetara telefonoz deitu eta txanda hartzea besterik ez zitzaion geratzen. Eibarko telefono zenbakia markatu zuen. Kontxo! komunikatzen... behin eta berriro. Halako batean lortu zuen norbaitek erantzutea: "– DNI, esan. – Aizu, karneta ateratzeko txanda hartu nahi nuke. – Ba trasladoo egiten gabiltza eta hemendik 20 egunetara berriro deitu beharko duzu".

"Eta orain zer? Ordezko zerbitzurik ere ez? Garaia ere ederra, opofren atarian".

Besterik egin ezean eta karneta ateratzeko behar zena Eibarko bulegoren baten izango zenez, itxarotea erabaki zuen. Baina hara non, derrepentean telebista eta egunkarietan NAa ateratzea hemendik aurrera Eibarko Ertzaindegian egin ahal izango dela aldarrikatzen duten.

"Hauxe duk nirea!", telefonoz deitu eta Ertzaindegian ondorengo erantzuna: "Hemen egingo da, baina oraindik polizia dagoen tokian ez dute telefonorik jarri eta proba ezazu hemendik bi astetara ea ordurako jarri duten". Komentario-rik gabe.

BEÑARDO KORTABARRIA

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Astelehenean hasiko dira Udalekuak

Astelehenean, uztailak 6an hasten dira AEDko udaleku irekiak. Bertan 640 neska-mutikok hartuko dute parte eta esan behar da urte honetan ume kopuru handia apuntatu dela, prebisiok apurtuta. Goizero hiru ikastetxe desberdinetan elkartuko dira guztiak. Mailaren arabera, 1. eta 2. mailakoak Ferixalekuan, 3., 6., 7. eta 8. mailakoak San Viatorren, 4. eta 5. mailakoak San Frantzisko Xabier ikastolan elkartuko dira. Lehengo txanda uztailaren 17 arte iraungo du eta ordutegia goizez 10etatik 13ak arte eta arratsaldez 3etatik 7ak arte izango da. Bigarren txandakoak uztailaren 20an hasiko dira eta 30ean bukatuko dute, ordutegi berberarekin. Bigarren txandakoak Ferixalekuan elkartuko dira.



Proiektuak aurkezteko epea hilaren 17an bukatzen da

'Arrisku soldata' programa martxan


Zazpi kontratazio egingo dira proiektuak aztertzeko

Udalak, INEM eta Diputazioaren laguntzaz, *Arrisku Soldata* izeneko programa antolatu du langabezia duen arrasatearrentzat. Programa horren arabera, lanposturen bat sortzeko ideia edo proiekturen bat duen edozein langabek, sei hilabetez eta soldatapean, ideia edo proiektua ona den edo ez ikertzeko aukera izango du. Sei hilabete epe horretan, ideia ikertzeaz gain, enpresa gestioari buruzko formakuntza eta beharra izanez gero aholkularitza indibidualizatua eskainiko zaie progra-

man parte hartzea lortzen dutenei. Azkenik, bideregari jotzen diren programak martxan jartzeko, administrazio-tramitazioetan eta izan litezkeen laguntza publikoak lortzeko laguntza ere eskainiko luke Udalak.

Guztira sei hilabetez zazpi kontratazio egiteko asmoa dago eta ideiak edo proiektuak aurkezteko, uztailaren 17a ezarri da epetzat. Uztaileko azken bi asteetan eta irailean zehar burutuko da aukeraketa prozesua, eta programa urrian hasi eta martxoan bukatu da.

Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32



Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

92-93 IKASTURTEA

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Matrikula irekita

Hurbil zaitez gure bulegoetara.

Arrasaten 9etatik 1etara
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara



AKADEMIA


BASTIDA

INEMEK HEMOLOGATUTAKO ZENTRUA

1992 UDAKO IKASTARO TRINKOAK

- GESTIO INFORMATIKA
- PROGRAMAZIO INFORMATIKA
- KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
- MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
- TAKIGRAFIA
- KLASE BEREIZGARRIAK
- MERKATAL KORRESPONDENTZIA EUSKARAZ

Ferrerias, 44 etxeba
20.500 Arrasate
Tfnoak: 79 32 16
79 77 13



Txakurrak txertatzea ez da derrigorrezkoa, baina bai gomendagarria.

208 txakur txertatu kanpainan

Baserri-auzoetan daude txakur gehien

Ekainaren lehen hamabostaldian burututako txakur-amorruaren aurkako txertaketa kanpainan, guztira 208 txakur txertatu zituzten. Kontuan hartuta urtean zehar lauhunen bat txakur txertatzen direla, argi dago kanpaina berezia burutzen den garaian, dauden txakurren erdiak txertatzen direla.

Albaitariak utzitako datuen arabera, arrasatearrek duten txakurren erretratu-robota ondorengoa izango litzateke: txakur arra, 4 eta 6 urte bitartekoa, mestizoa eta baserrian bizi dena.

Txertatu diren 208 txakurren artean

zaharrenak hamalau urte zituen, "oso gauza arraroa" albaitariaren hitzetan, eta txakur gehien Meatzerreka auzoan daude. Txertatutako txakur gehienak mestizoak izan baziren ere, artzai alemanak, artzai euskaldunak, setterrak eta pointerrak ugari izan ziren.

Txakur amorruaren aurkako txertaketa kanpaina bukatuta, gogoratu behar da urtean zehar ere, albaitariarengana eramanda, txakurra txertatzeko aukera dagoela bukatu berri den amorruaren aurkako kanpainako prezio eta baldintza beretan.

Udaletxean udako ordutegia

Uda iritsi dela eta, Udaletxeko langileek goizez bakarrik lan egiten dute. Udaletxera joan beharra dutenei ez zaie gaizki etorriko bulegoen ordutegia goizeko 10etatik eguerdiko 1ak artekoa dela. Beraz, arratsaldez itxita izango dira Udaletxeko bulegoak.

Elkartrukea suspendiduta

Gazteen Informaziorako Udal Bulegoak antolatuta uztailean zehar Arrasate eta Estremadurako Almendralejo herriko gazteen artean elkartrukeak burutu behar ziren, baina azkenean suspenditu egin dira. Dirudienez, hementxo ezezik hango gazteek ere ez zuten izenik eman burutu behar zen elkartrukean parte hartzeko.

Lantegi Eskolan 40 ikasle bakarrik

Datorren ikasturtean, bailarako 40 gazte langabetak bakarrik izango dute Lantegi Eskolan igeltsaritza, iturgintza edo elektrizitatea ikasteko aukera. Aipatutako 40 gazteetatik, 16 Arrasatekoak izango dira 9 Bergarakoak, 6 oñatiarrak, 4 atxabaltarrak, 2 Eskoriatzakoak eta Antzuola, Elgeta eta Gatzagatik bana. Irailean hasiko den ikasturterako matrikula eskariak 600 baino gehiago ziren, baina INEMen izan den aurrekontuen murrizketak 40ra mugatu du ikasleen matrikulaketa. Azken ikasturtean Lantegi Eskolan 100 ikaslek egin zuten matrikula.

ARRASATEKO SAN VIATOR IKASTOLAK

HONAKO LANPOSTU HAUEK BETE BEHAR DITU:

- Ingeles Filologoa (egun osorako)
- Euskal Filologoa (egun osorako)
- Artederretako Lizentziatua (egun erdirako)

Betebeharreko baldintzak:

- EGA Titulua
- Kasuan kasuko titulo akademikoa

Frogak uztailek 6an, goizeko 9.30etan egingo dira Arrasateko San Viator Ikastolan (Arrasate Pasealekua, 10. Tfnoa: (943) 79 04 11.

ARRASATE PRESS



77 05 65


NAROKI

Urrezko bitxiak

NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak, Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47



Joan zen ostiralean eta San Juanetako jaiei amaiera emateko, pelota partidu bat izan zen: **Xipri** eta **Txispas, Txikito de Beneras** eta **Txikuri**ren aurka (azken hau argazkian). Jendeak bikote biak animatu zituen baina azkenean aipatutako azken bikoteak lortu zuen irabaztea, emaitza 22 eta 10 izanik.



Pasa den igandean arratsaldeko 7.30etan **gay eta lesbianen eskubideen aldeko manifestaldia** izan zen Arrasateko kaleetan. Pankarta batez pertsona guztien sexu askatasuna aldarrikatu zuten. Nahiz eta jende asko bildu ez, kanpoan begira geratu zen jendea talde horren presentziaz ohartzeko balio izango zuen.

Meltxor Briones eta **Lourdes Arrotxa**

maiatzaren 16an ezkondu ziren. Eztai bidaian Mejiko eta inguruko herrialdetan egon ziren. Bueltan izango ditugunez, hemendik zorionik beroena bie!



Epelde

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



▲ Pasa den larunbatean jokatu zen **ARKO eta AEDren arteko futbol partidua**. Bero izugarriekin jokatu zen, baina hala ere ekipo bakoitzak, ahalegin guztiak egin zituen partidua irabazteko. Batek irabazi behar zuela eta, azkenean ARKOk lortu zuen merezimendu hori.



◀ Musakola kiroldegiko **kanpoko igerilekuak zabalik** daude pasa den astelehenetik. Eguzkia hartzen jende asko ikusi da egun eguzkitsu hauetan eta uretan ume pila bat, argazkian ikusten denez. Ea besteok ere animatzen garen.

txutxumutxuak

Izen
PROPIOAK

● **Balentin Moreno**, SUDC-eko ordezkaria, Irunen izan zen pil-pil erako makailu txapelketan parte hartzeko eta bigarren postua lortu zuen. San Juanetako jaietan espezialitate berean txapelkun geratu zen.

● **Maia Mondragon, Maier Murua, Beñat Zabala, Iñaki Fuente, Iban Sanchez, Gotzon Olarte, Rebeka Saiz, Itziar Gortazar, Amaia Alvaro, Aritz Arrieta, Ramoni Dacosta, Rosi Dacosta, Ander Corcuera, Ibai Orruño eta Itziar Iglesias** arrasatearrek, Arrasate Igeri Taldearen ordezkari bezala, asteburu honetan Ceutan burutuko den Estatuko Aletadun Igeriketa Txapelketan hartuko dute parte.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak, Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE

EGUNKARI GAZTEA

Erguingo 5-giarran Mailakoek Egindako Egunkaria

2ko Mailakoa Arrasate



lifornia hegoaldean rikaria

Joana Jaime ta Ruben

gimendua teluriko batek 4.0 graduko orko sakaban (10 puntuko dena) irabiatu. Hegoaldean kalte txikiak baino ez ekarri zituen.

Irailak 22an, alderdi berdinan egon zara 61 graduko lehen nebulak da baina den bigarren lurrikara intentsuena.

Indela 10 urte herri honetan lurrikara 7. gradukoak bi urteetan beriz eta zuzen eta 10 milioi dolarreko kalteak.

ifoniatu jendea beldurra dago sarean adakite balter lurrikara handi bat 70 mila (The Big One).

Etorkizunaren Etxea



Etorkizunaren etxea azaldu da. honak erortze aurretikoa da eta leku berria aldatu da.

BESTE BERRI BATZUK

* Xabi, Miren eta Agurtzane irabiatu: elkarriketa.


* Santa Barbararen Lanak

* Iratxe eta gurea

* Zineko Iratxe

* Elkarriketa

* Egurak. Horoskopoa eta besteak



San Juanetan arrasatear askok alde egin zuen herritik. Guztiak nora joan diren jakitea ez da erraza, baina bat baino gehiago seguruen **Expo-a** ikustera joango zen. Esfera bioklimatikoaren azpian ageri direnak, Igone, Kontxi eta Rosak, hala egin zuten.

◀ Erguingo 5. mailako ikasleek
◀ **Egunkari Gaztea** deituriko aldizkaria atera dute. Irakasleekin elkarriketa bana eta bakoitzaren argazkiekin ilustratu dute aldizkaria. Testua eurak idatzi eta irakasleen laguntzarekin maketatzea lortu dute.

Almemekoez ere animatu dira eta **Almenkaria** deituriko beste bat atera dute. Hauek ez dute lehen aldialdialdizkaria ateratzen dutela, ihaz ere ateratzen bait zuten. O.H.O. eta G.H.Oko ikasleek egin dute lan guztia. Hala ere izan dute irakasle baten laguntza.



Ikasturtearen bukaeran **Erguingo ikasleen bisita** bat izan genuen Arrasate Press eta telebistan ere. Ume pila bat izan genuen gure artean eta galdera batzuk ere prestatuta ekarri zituzten.

ALMENKARIA

abuztuak, 1992ko abuztuak, 19

"AHOZ AHO BERTSOA ETA IRRIA" lempaen maitzaren 29an Kultur Eguna Almenen

Almenen auzoko kultur elkartek egun hainbat bitxiak egingo ditu, baita ere bertsoak entzun eta berritzen ere egin dituzte.

egun hainbat bertsoak irakurriko dituzte, baita bertsoak ere berritzen ere berritzen dituzte. Bertsoak irakurriko dituzte, baita bertsoak ere berritzen ere berritzen dituzte.

1992ko abuztuak, 19

TXASKARRILOA

Irailak, irailak eta gurea

1992ko abuztuak, 19

JONE DEL BARANDIARAN

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

1992ko abuztuak, 19

EDER
apaindegia

honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Solarium-a
- Ileenketa
- Masaia
- Manikura
- Larmintz garbiketa
- Makilaia
- Pedikura

Maalako errabala, 6 1. ezkerre
ARRASATE Tfnoa: 79 71 23

Elektroinjekzio Zerbitzua

LUCAS

ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

ENARA OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate

UXARTE
Kafetegia, gozotegia
Gauetz irekita!!
JO TA KE!!
Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE



TALLERES MECA, S. A.

Araba Etorbidea z/g
20.500 ARRASATE

Clio-a



Kaixo laguna:

Seguru zuri ere asko interesatzen zaizula modan dagoen autoa:

CLIO-a

Baldintzarik gabeko kidea, beti erantzungo dizuna. Zu bezain dinamikoa eta ezberdina. Zure estilo eta bizikerara ondoen egokitzen dena aukeratzeko moduko bertsio-gama zabala. Frogatu ezazu zeuk bere motorren indarra, 140 zalditarainokoa!

Orain esku-eskura jartzen dizugu CLIOaren jabe egiteko aukera, azkenean! Zure neurriko finantziazio-baldintzekin!


Gainera, gure kontzesionarian eskaintza bereziak ditugu zuretzat:

• **GASOLINA DOAN**
Lehen 5.000 kilometroetarako
(300 litro gehienez)

• **Erabilitako zure ibilgailuaren balorazio apartekoa. Dagoen eran dagoela.**




Zatoz MECA TAILERRETARA eta eramazu aurtengo udan modan dagoen kamiseta, zure CLIOa bezalakoa. Honekin batera doan txartela eskatzeagatik bakarrik, zuretzat.


Zure zain gaurke



Gurutze Egiluz



Jabi Tramon

Idea eta gidoia:
MIKEL INTXAUSTI

Aktoreak:
ALBERTOJabi Tramon
XANTIBeñardo Balerdi
MIRENGurutze Egiluz

Zuzendaritza eta argazkigintza:
ANA DIEZ
eta
MIKEL ARANA

MUGA GUZTIEN GAINETIK

© Arrasateko Institutuko Ikasleak

IKASKETAK BUKATU ETA BEREHALA AURKITU DU LANA, BAI ZORTE ONA! ETXETIK APARTE JOAN BEHAR DU, HORI BAI. BAINA, GURASOEK ERE ANIMATU EGITEN DUTE. ETA AZKEN FINEAN, EZ DU GAUZA HANDIRIK UZTEN ATZEAN, BETIKO LAGUNEKIN EZ DU HARREMAN HANDIRIK ETA UNIBERTSITATEKOAK SAKABANATU EGIN DIRA.

IRISTEN ARI DA, LEHENBIZI ETXEA ALOKATU ETA BIHAR LANTEGI BERRIRA...





Neu kanpora noa eta dagoen bezala utziko dizut. Hilean 50.000 PTA kostatuko zaizu.



Askotxo da baina ados. Trasteak igotzera noa.

Nekatuta nago eta bihar argi egon behar. Banoa ohera...






HURRENGO GIZEAN...

Kaixo, Alberto naiz.

Ni Xanti. Ongi etorri! Lantegia erakutsiko dizut.



Eta hemen, azkenik, bulegoak hogeitabi lagun aritzen gara hemen...



... Baina zuk nirekin lan egingo duzu, alboko mahain. Ongi etorri berriro!

Eskerrik asko.




Xanti, gaurko eguna libre hartu nahi nuke, etxean instalatzeko. Bihar hasiko naiz.

Konforme.


HILABETE IGARO DA ETA ALBERTOK HARTU DIO ESKUA LANARI. XANTI-REKIN ONDO KONPONTZEN DA BAINA EZ DU BESTELAKO LAGUNIK. ILUNABARRAK LUZE EGITEN DIRA BAKARRIK...



Beno, hemen nago. Etxea gustatzen zait eta Xantik jatorra dirudi.




Bakar bakarrik...



Aizu, bakarti, zatoz gaur gure etxera faltzera.

Bale Xanti, eskerrik asko.




GEROTXOAGO.

Epa! Aurrera. Afaria ia prest daukat eta Miren laster etorriko da.



Miren, hau Alberto da, hemen nire emaztea.



Ez nekien zu zinenik. Telebistan maiz ikusi izan zaitut.

Beno, hori nire lana besterik ez da.

ALBERTORI ASKO GUSTATU ZAIO MIREN ETA AFARIAN EZ DIO BEGIRIK KENTZEN.



Orduan, bakarrik bizi zara?

Bai, alde batetik gustatzen zait, baina, sarritan bakarrik sentitzen naiz.



Agur Alberto. Etorri nahi duzunean.

Saiatuko naiz, eta mila esker.

JARRAITUKO DA

SAIATUKO DA ZIUR. ASPALDIAN EZ BAIT DU HALAKO NESKA EDERRIK EZAGUTU. BAINA XANTIREN EMAZTEA DA. LASTIMA!

Axun Etxagibel

Garagartzako Brasildarraren gogoetak



Kzena Ascension du baina etxean eta Garagartzan Axun bezala ezagutzen dute. Karitateko Mertzედaria da eta urteak daramatza herritik kanpo. 1960an joan zen Brasilerara. Jaioterrian denboraldi bat egin ondoren, berriz ere urrutiko lurretara itzuli da.

—1960tik Brasilen, egonaldi luzea, ezta?

—Bai, beno, hasieran ez zegoen etxera itzultzeko esperantzarik ere, destinoa betiko balitz bezala. Hamabi urte egin eta gero bi hilabeterako etorri nintzen eta gero bost urtetik behin etortzeko modua jarri ziguten. Geroago lau urtetik behin eta orain hirutik ipiniko ote duten esaten da, baina ni laurekin ere gustora nago.

—Eta bitarte horretan zertan egin duzu lan?

—Beti gaixoeekin. Erite-txeetan egon naiz eta orain ere hala nago. Niri beti arlo horretan tokatu izan zait baina horrezaz gain, Brasilen lan sozial handia egiten da: dotrina ematen da eta gaixoa ezagutzeko lan handia, nondik datorren eta nora doan ere ezagutzen ahalegintzen gara. Gaixoei laguntza emateari garrantzi handia ematen zaio. Horrek ez du esan nahi erizain lanik egiten ez dudarik; azken hoge urteak zirugian daramatzat gainera.

—Medikuntza ezberdina da Brasilen?

—Bai, erabat ezberdina da hemengoaren aldean. Jendea ez dago hemengoa bezala prestaturik, ez dute heziketa egokirik eta egiten diren akats guztiak barkatu egin behar zaizkie, izan ere amaren sabeletik hasita ez dute behar bezalako elikadurarik eta ez dute hemengoek

adinako inteligentziarik ere. Ezin zaie indar handiagoa, dedikazio handiagoa eskatu, eskatu egiten zaie baina ez dira iristen. Hemengo sendagile eta erizainek duten mugimendua, ardura, hemen ordu erdian egiten dena egiteko zortzi ordu behar dira han, ez dute halako tre-beziarik.

—Brasil behartsua da?

—Bai. Begira, hango batzuk hemen zehar ibili ziren hilabetez, Italia, Frantzia, Donostia, Madril etaartzelona ezagutzen eta hara

itzuli zirenean zer iruditu zitzaizen galdetu nien. Ez duela definiziorik esan zidaten. Beste mundu bat da guztiz, eta ezin zuten azaldu ere egin. Elikadura erabat ezberdina da, bizi izateko era ere bai. Hemengo jazteko era, egiten diren gastuak, erabiltzen diren tresnak, hemengo bizi-tzeko eragatik dituzuen gauza guztiak hemen beharrezko direnak, han ez daude. Han erizain arrunt batek ez du autorik hemen bezala. Soldatak ere askoz txikiagoak dira, baina ez dago hainbeste

gastu ere. Han ere, balego gauza bera egingo litzateke.

Osasun arloan, adibidez, alde izugarria dago. Hemen dena botatzeko gauzaz egiten da, gasa, xiringa eta antze-koetan. Badakigu horixe dela ideala baina gu oso urruti gaude horretatik. Beti aurrera joan nahi dugu baina neurri baten konformatu beharra dago gure posibilitateen barruan, beti ikasiaz eta hobetuaz joatea da gure helburua.

—Zelakoak dira brasildarrak?

—Atseginak, oso atseginak. Erabat izaera ezberdina eta oso jende ona dira. Han ere denetik dago, leku guztietan bezala, eta lapurreta kontuak ere asko entzuten direla ere egia da, baina go-seak, beharrianak, fabelek, zubipean hainbeste jende izateak eragiten du hori.

—Zela aurkitzen duzu herria hona zatozenean?

—Guztiz aldatuta. Esan ere egin diet, etxekoei, hurrengo natorrenean Madrilerara edo Gasteizara joan beharko dutela bila eskutik helduta ekartzeko, natorren bakoitzean gauza ezberdinak aurkitzen ditut eta. Baina horrek, aurrerapen horrek asko pozten nau, bizitza dagoen seinale da eta. Horixe da han ikusi nahi nukena.

—Noizarte herritik kanpo?

—Han aurrerapena ikusi nahi dudalako bueltatuko naiz, lan apur bat gehiago egitera. Oraingoan banao, baina ezin dut esan egunen baten hemen geratuko ez naizenik. Hango lana oso gogorra eta sakrifikatua da, ordurik gabea, 24 ordutan egoten naiz bertan eta, baina hala ere oso zoriontsu naiz. Poz handiz ematen den sakrifizioa da, ematen dudak guzti hori bizi dudan zorionarekin itzultzen dit eta Jainkoak.

“
Hemen ikusten dudan
aurrerapenak asko pozten nau”

Mendia: berez garbia, baina errealitatean zikina

Badirudi azkenaldean mendizaletasuna areagotu egin dela, geroz eta gehiago dira bere denbora librea mendira bideratzen dutenak eta. Hori jakiteak natura eta gizakien arteko harremana orekatuz doala pentsarazi dezake, baina errealitatea bestelakoa da: mendian geroz eta jende gehiago eta mendia gero eta zikinago. Hortaz ohartuta, Diputazioa eta mendizale taldeek iaz "Mendia berez garbia" kanpaina antolatu zuten, aurten errepikatzen ari dena.

Sentsibilizatzeko lana

Bigarren aldiz egiten ari den "Mendia berez garbia" kanpainari ekin zitzaion ekainaren hasieran, 38 mendizale talderen partaide-tzarekin, Besaide Mendi Taldea barne. Iaz kanpaina hau, egun jakin batean mendia jakin baten garbiketa egitera mugatu bazen, aurten urrunago joan nahi izan da eta mendian ibiltzen den jendearen sentsibilizazioa lortu nahi da.

"Orain arte, -dio Andoni Villar, Besaide Mendizale Elkarteko presidentea- urtean behin mendia batera joan eta inguruak garbitu edo eta borda edo iturriren bat txukundu dugu, baina garbiketa horrek ez du arazoa konpontzen". 364 egunetan zikintzen dena ezin da egun batean garbitu, beraz aurten-

go kanpainak jendearen jarreraren aldaketa proposatzen du: mendira joandakoan sortarazten den zaborra batu eta berriro ere etxera eramatea.

Sentsibilizazio kanpaina urtean zehar garatuko da, dagoeneko hasita badago ere. "Mendia berez garbia" dela jakinarazteko eta garbia izan dadin onena zaborra kalera

jaistea dela aldarrikatzeko, hainbat material kaleratu da eta komunikabideen publikizitatea erabiltzen ari da. Kaleratutako materiala —trip-tikoak, pegatinak eta zabor poltsak— Mendizale Taldeetan banatu da. Horretaz gain, probintziako ikastetxeetan ere jaso dute material hori, gazteen heziketan naturarekiko errespetua sartzeko garrantzitsutzat jotzen da eta. Era berean, mendien garbitasunean zerikusi handia izan dezaketen sektoreak direnez, baserritar eta ehiztariei ere banatu zaie materiala eta informazioa. "Ehiza postuena —Iñaki Irizar, Bergarako Pol Pol Mendizale Taldeko partaidearen hitzak dira— oso gauza kuriozoso da, erabilitako kartutxo guztiak poltsa batean batuta edukitzen dituzte eta, baina ez dira gauza poltsa kalera jeisteko, bertan lagatzen dute. Dena dela, ehiztariez aparte, jarrera hori oso zabala da eta ulergaitza gainera, zaborra jaistea ez da batere kostatzen, eta gainera, igotzerakoan baino pisu gutxiago eraman behar izaten da".



Denetarik aurki daiteke mendian, normalena lata eta aluminiozko paperak badira ere.

Garbiketa eguna

Mendia berez garbia” kanpainan parte hartzen duten 38 taldeen helburua egunen batean mendian zikinik ez ikustea izanda ere, urteroko garbiketa egunari ere garrantzia eman nahi zaio. “Garbiketa mendizale taldeok egiten dugu, baina ez gure lana delako, atentzioa deitzearren batez ere” zioten Andoni Villar eta Iñaki Irizarrek. Aurrez pentsatutako 40 garbiketa irteeretatik, dagoeneko 30en bat burutu dira probintzia osoan, daturik esanguratsuenak ondorengoak: parte hartzaileak 550 gutxi gorabehera eta jasotako zaborra, 4 tonelada inguru.

Besaide Mendizale Elkartek, Degurixa garbitzeko asmoz, larunbat honetan egingo du irteera. Beraz, alde horretatik garbituko diren inguruez ezin da ezer esan, baina bai aurreko urteetako lanari buruzko xehetasunak jakin. “Normalean, mendien garbiketa egiteko, arrasatear arrasatearrak 6 edo 7 lagun biltzen gara, gehiago ez; baina, Aretxabaletakoekin batera lan egiten dugunez 30en bat laguneko taldea osatzera iristen gara. Behar bada horrela esanda, talde txikia dela pentsa daiteke, baina kontuan hartu behar da muxutruke horrelako lana egiteko jendea biltzea ez dela erraza. Martxa bat egiteko erraza da jendea erakaritzea,



Sarritan kontenedoreen inguruak izaten dira zikinenak.

baina horretarako ez. Denez, papera, olio bidoiak... Gauza kuriosoak ere aurkitu irteeretan: kotxe zaharrak, botelak, latak, aluminiozko berriak, umeen pañalak...”

Kanpaina bukatu arte ez da datu zehatzik izango, baina, garbiketa egunen ondorioz, mendira joaten den jendearen ohitura edo joerez jabetzeko gai izan dira Andoni eta Iñaki. “Mendizaleak joaten diren tokiak bakarrik daude nahiko garbi; sarbide errezeokoak, ordea, Urbia edo Aralar esaterako, oso zikin daude. Era berean, kontenedoreak jartzeak zikintzera behartzen duela dirudi, inguruak oso zikin egoten dira eta. Gauza bera, taberna, borda edo mendi-zuloak dauden tokietan”.

Mendia zikina dago eta ez zikintzea guztion lana den neurrian, garbitzea ere bada. Beraz, mendia garbitzen lagundu nahi duenak, bihar goizeko 8.30etan Besaideko egoitzan egotea besterik ez dauka, eraman beharreko gauza bakarra, borondatea.

Instituzioen laguntza

Mendiaren garbitasunaren aldeko kanpainaren lan zikina Mendizale Taldeek egiten dute, baina aipagarria da Udalek, Mankomunitateak eta Diputazioak emandako erantzun ona, karga ekonomiko guztia euren kontura doa eta. “Instituzioak horrelako kanpainen alde agertzea normala da, mendia garbitu eta era berean jendea sentisibilizatzen denez oso langintza merkea egiten diegu. Dena dela, instituzioen barruan zerbait nabaritzen da: orain arte laguntza eskaini eta eskatutakoa ematera mugatu dira, baina azken aldean euren aldetik zerbait egiteko asmoa nabarmena da. Borondate ona nabaria da, baina lehenetsunaren aldetik ekologia oso atzean dago instituzio guztien zerrendan. Hala eta guztiz ere, instituzioen laguntza barik jai dago, horrelako kanpainak ez lirateke posible izango”.

**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**

Bizkaia, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



30 mutiko Lehen saskibaloia Ihardunaldietan


Joan den astelehenean hasi eta uztailaren hamarrera arte, Arrasate Saskibaloia Taldeak antolatutako Saskibaloia Ihardunaldiak burutzen ari dira Musakolako kiroldegian. Guztira, hiru taldeetan banatuta, Arrasate, Aretxabaleta eta Elgoibarko 30en bat mutiko egunero egunero,

goiz eta arratsaldean, kiroldegira joan eta arduradunen aginduetara jartzen dira. Normalean, goiz eta arratsaldeko denbora antzerabiltzen dute: erdia saskibaloian jokatu ahal izateko bakoitzaren teknika hobetzen eta beste erdia kirol desberdinak egin eta jolasean.



Urrak errebantxa hartu

Eskuz banakako finalaren errebantxa jokatu zuten Urra eta Irazolak San Juanetako azken egunean. Benetako finalean Irazolak justu justu irabazi bazuen ere, San Juanetan Urra nagusitu zen, erraz gainera, 22 eta 8.



Eroski - Gatzaga kriterium-ik ez aurten

Diru-arazoak medio, aurten ez da Eroski eta Gatzaga arteko txirrindulari profesionalen lasterketarik burutuko. Iazko urtean antolatu zen lehen aldiz lasterketa hau eta antolatzaileek urtero egiteko asmoa adierazi zuten. Asmoak asmo, errealitatea bestelakoa gertatu da, eta antolatzaileek ezin izan dute inoren laguntza ekonomikorik lortu. *"Eroski, Lankide Aurrezkoa, Jaurlaritza, ETB eta beste toki batzuetara jo dugu diru-eske. Agindu agindu digute, baina ez horrelako lasterketa bat antolatzeko behar den beste. Beraz, Eroski-Gatzaga proba ez antolatzeko erabaki dugu, nahiz eta antolatzeko gogoz izan"*. Gogora daiteke iazko probak, gutxi gorabehera, 3 milioitako aurrekontua izan zuela eta irabazlea Julian Gorospe izan zela. Orduan makina bat jende bildu zen Gatzagako aldapetan txirrindularien ahaleginak txalotzeko, aurten zoritxarrez ez da horrelakorik ikusiko.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa. 79 04 28

PODIUMA

JABI
ZURBANOSaskibaloia
irakasle

Jabi Zurbano Arrasate Saskibaloia Taldeak antolatu dituen ihardunaldien arduradun nagusia da. Bukatu berri den denboraldian eta aurreko hiruretan emakumezkoen 2. mailako taldeko entrenatzailea izan da. Entrenatzaile titulua orain lau urte atera zuen, hemen bertan egindako ikastaro baten ondoren, baina ordu-rako kadete eta gazte mailako taldeak entrenatzen zituen. *"Hamabi urte nituenetik nabil saskibaloia-munduan, familiakoek ere betidanik jokatu izan dute eta. Futboleko ondo nengibilen, baina belauna izorratu zitzaidan eta utzi beharra izan nuen"*.

Saskibaloia bere bizitzako bigarren gauzarik inportanteena dela dio Jabi Zurbano eta lehena zein den galdetzerakoan *"hori top secret da, ez dizut esango"* erantzuten du. Ondorioz, saskibaloian berak betetzen duen lanaz hitz egin behar. *"Entrenatzaile lana gustatu egin behar den zerbait da, afizioa derrigorrezkoa da, bestela ez dago zer eginik. Afiziorik ez badago zail da lan honetan denbora asko irautea, hobetu egin daiteke baina sekula ez zaletasunez dabilen bat hobetu daitekeen neurrian"*.

Orain arte Jabi emakumeen entrenatzailea izan da eta oraintxe, sas-

kibaloia ihardunaldietan, gizonzkoekin hasi da lanean. *"Mutikoek neskek baino errazago ikasten dute, baina neskekin lan egiteak poztasun pertsonal handiagoa ematen du, gehiago sufrizten dute eta. Neskekin arrakasta lortzea ez da hain erraza, baina bai politagoa. Mutikoak gutxiagorekin konformatzen dira eta gainera gauzak ondo ez badoaz, segituan uzten dute"*.

Oinarrizko taldeetan teknika indibiduala lantzeari berebiziko garrantzia ematen dio Zurbano, maila handiko taldeetan sistemak, tiroa eta talde jokoak lantzea garrantzitsua den moduan. Saskibaloia entrenatzaile gehienak bezala, defentsa jokoak maite du bereziki eta etorkizunera begira ez du aparteko helbururik jarri. *"Emakumezkoen bigarren mailako taldea entrenatzeari utzi egin diot, baina ez dakit noraino iritsi naitekeen. Uste dut maila handiagoko taldeak entrenatzeko gai naizela, baina ez dakit zer gerta daitekeen"*.

◆ Txirrindulariak bostgarren Gipuzkoa mailan

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako jubenil mailako taldeak, Tolosan burututako Gipuzkoako Erlojuaren Aurkako Txapelketan bostgarren postua eskuratzea lortu zuen. Aipatutako txapelketan guztira 24 taldek hartu zuten parte eta arrasatearren taldean honako hauek izan ziren: Zigor Urain, Joxe Migel Elizburu, Iker Zugasti, Aritz Altube eta Ruben Cabero. Erlojuaren aurkako Gipuzkoako Txapelketaz aparte, jubenilek beste lasterketa bat izan zuten Oñatin: 65 txirrindularik hartu zuten parte eta Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako txirrindularien aldetik aipagarrienak Joxe Migel Elizbururen bigarren postua eta Zigor Urainen laugarrena izan ziren.

◆ Arrasatearrak Estatuko Igeriketa Txapelketara

Joan den astean Gipuzkoako Aletadun Igeriketa Txapelketan parte hartu eta gero, Arrasate Igeri Elkarteak hamabost partaidek larunbata eta igande honetan Ceutan burutuko diren Estatuko Aletadun Igeriketa Txapelketan parte hartuko dute. Gipuzkoako Txapelketari buruz esan behar da arrasatearren lana ona izan zela, hamabost lagunek Estatuko Txapelketarako txartela lortzeaz gain, errelebotako proban taldeak lehen postua lortu bait zuen eta sailkapen orokorrean, berriz, bigarrena. Txapelketako aipagarriena, behar bada, Beñat Zabala juniorrak egindako lana izan daiteke, parte hartu zuen proba guztietan lehen postua lortu zuen eta.

Asteburu honetan, beraz, Ceutan hamabost arrasatear izango dira, eta hamasei izan zitezkeen, baina Unai Txaparrok, Sonia Txaparro txapeldunaren anaiak, istripua izan zuen eta Gasteizko ospitalean dago.



UZTAILEAN

21 urtetik beherakoak 3.500
PTA bakarrik, matrikula barik.

- Pesak • Gimnasioa
- Aerobic • Sauna

Uribarri, 12 Tfnoa: 77 00 67
ARRASATE

BETI ONA

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

Kasuaren metodoa gestio-prestakuntzan

Herrialde mediterraneanar edo latindar bateko irakaslea irakasle anglosaxoniarrerekin harremanetan jartzen denean, enpresa-gestioko tekniken irakaskuntzan sortzen den lehen ezberdintasun metodologiko handia, ikaslearen eta irakaslearen pape-rari buruzkoa izaten da.

Sentipen berbera izaten dute ikasleek ere. Hemengo ikasle bat Ingalaterrako uni-bertsitate edo politeknikoaren batetara joaten bada, ezberdintasun handia sumatzen du hemen edo han ikastearren artean: gauza berbera esan liteke ingeles edo amerikar- ren bat gure ikastetxeetara

etortzen denean.

Ezberdintasunaren arrazoi nagusietako bat metodolo- gian datza, hain zuzen. Ez da, bereaz, harritzekoa izaten graduatu-ondorengo ingeles bati honelako zer bait entzutea: "Zuek ohituta zaudete irakasleak hitzegin, azaldu, ariketak ebatzi... hau da, dena edo ia dena egitera, eta bitartean ikasleak entzun, entzun eta entzun egitera. Ingalaterran, ordea, irakasleak orientabide batzuk eman eta ikasleak egin behar izaten du gainerakoa: lana prestatu, klaseetan defendatu eta aurrez emandako kasu konkretuen gainean eztabaidatu. Ikaslearen antolamendua eta ahalegin pertsonala, irakas-

learen orientazio egokiarekin batera, funtsezkoak dira irakaskuntzaren metodolo- gian".

Zertan datza metodoa?

Kasuaren metodoaren oi- narrizko suposamendua hau da: Gestiorako prestakuntza eta hobekuntza (manage- ment) programetan parte hartzen dutenek -nahiz lan esperientziarik gabeko ikasleak izan, nahiz lanean ari diren exekutiboak izan- beren gestio-gaitasun eta ahalmenak dextente hobetu ditzakete, benetako egoerak sakon aztertu, analizatu eta landuz, eta taldeka eztabai- datuz. Analisi zorrotzak, be- harrezkoa kasu luze eta

konplexuetan batez ere, arrazonamendu logikorako gaitasunak garatzeko aukera ematen du, baita beharrezko informazioaren bilaketa, da- tuen analisi eta ebaluazioa eta erabaki zuhurra hartzeko konklusio egokiak ateratzeko erraztu ere.

Bestalde, mikroordena- dore bidezko simulazio-tek- nikei esker, strategi jokoak, ingurune lehiakorretan era- baki-hartzeak, etab. (Busi- ness Game) azaldu eta hedatu dira. Hauek, "kasu"ekin ba- tera, baliabide interesgarriak dira irakaskuntza aktiboko metodologia ezartzeko.

(Jarraitukodu)

FERNANDO MURGIONDO
ETEO




GOIMAILAKO OSTALARIITZA ESKOLA

3. Mailako Modulo Profesionala HARRERALARIA

AURREINSKRIPZIOAK

- **LEKUA**
Eskola Politeknikoa
(Zerbitzu Zentralak)
Loramendi, 4 ARRASATE
- **EGUNAK**
Ekainaren 29tik uztailaren 10era.
- **ORDUTEGIA**
 - Goizez: 8.30etatik 12.00etara.
 - Arratsaldez: 14.00tik 18.00etara.
- **SARBIDEA**
 - Batxilergo Linguistikoa (Zuzeneko sarbidea).
 - Bainerako batxilergoak: hizkuntzen froga.
- **EKARRI BEHARREKOAK**
 - Famili liburuaren fotokopia.
 - Dagokion Udalak eginiko auzotasun agiria.



Turismoaren erasoak

Gaur egun, 40 ordu erabiltzen ditugu lanerako. 1900. urtean gizaki bakoitzak bere denboraren %26,5a bere atsedenaldirako erabiltzen zuen. 1950.ean berriz, atsedenaldira %34'a betetzen zuen. 2000. urterako, aldiz, %40ra ailegatuko dela kalkulatzen da. Beraz, gero eta denbora gehiago dugu gure atsedenaldirako, ordutegien murrizketa eta malgutasunek aisialdirako tarte luzeagoak errazten dituztelako batez ere, asteburuak edota oporrak luzatuz. Tarte horietarako aktibitateen artean agian aipagarriena, gure inguru hurbileko edo ez hain hurbileko errekursoak turismoaren bidez erabiltzea da. Turismoa aztertzerakoan, bi



elementu bereizten ditugu: erabiltzailea eta bere eskaerak alde batetik, eta errekursoak bestetik (parkeak, hondartzak...). Beste ekintza batzu bezala, turismoak eta beretzat sortutako zerbitzuek, eragin handia izango dute ekosistema edo inguru desberdinetan. Eragin hauek aztertzerakoan, bi mailatakoak bereiz ditzakegu:

• **Kontzienteki** egiten direnak. Gure nahiak asetzeko, gune desberdinen egokitzapenak izan daitezke aipagarriak. Horrela, hainbat etxebizitza edo egonleku, errepide eta aparkaleku eraikitzen da, besteak beste. Horrekin batera, txartel edo ikur gehiago, asfaltoa, zarata eta zabor pilaketa ugari, hau da, natura gutxiago.

• **Ez kontzienteki** egiten direnak. Adierazgarriak, gure oinekin edota erabiltzen ditugun tramankuloekin sortzen ditugunak (kotxeak, motorrak, bizikletak...). Bestalde, animalia batzuen desagerketa, edo beste batzuen ugalpena... Adibide hauek, muestra bat bakarrik izan arren, errekursoen erabileraren oinarriko eztabaida aurkezteko baliogarri dira, hots, **gizaki multzo handi batek, bilatzen doan hura galerazten duela**. Epe motzera, bisitari kopuruen murrizketa da irtenbide egokiena, eta, posible bada, beste edozertarako erabiltzen diren gune interesgarri batzuen egokitzapena, atsedenaldirako errekurtsu bezala erabiltzeko.

Turismo biguna

Oporrak bertan dauzka gunez, gehienok pentsatuta izango duzue horiek non igaro. Horregatik, **turismo biguna** bezala ezagutu eta benetan ingurugiroa errespetatzen duen ekintza honen aholku batzuk argitaratu nahi genizkizueke:

1. Turistek, garraio publiko edo ekologikoak erabiltzen dituzte. Horrela, zarata, ataskoak, aparkalekuak eta istripuak, besteak beste, gutxitu egiten dira.

2. Bisitariak, hostal txiki edo etxe pribatuak alokatze dituzte, eta ez "makro-hotelak".

3. Bisitariak, "gheto" turistikoak boikoteatu egiten dituzte bertako herritarrekin egotea nahia-go dutelako.

4. Bazkaldu ondoren, ez dira aluminio nahiz plastikozko ontziak mahai gainean geratzen, janari fresku eta ontzigabeakoak hartzen dituztelako.

5. Bisitariak ez dituzte



mundu-artifizial-turistikoak erabiltzen, lurralde horren ezaugarri kulturalak eta bertako natura bera bere kabuz ezagutzea nahi dutelako.

6. Turistek, ingurugiro-rako kaltegarriak ez diren kirolak praktikatzeko dituzte.

7. Turistak, lurralde

atzeritarrak ezagutzeko prestatzen dira, bertako hizkuntza, literatura eta ohiturak ezagutzeko. Hauek dira, besteak beste, turismoaren bitartez, herrien arteko elkar-harremanak sendotu eta ingurugiroari ahalik eta kalte gutxien egiteko jarraitu behar ditugun pausu batzuk.

Pintura ikasi nahi duten ikasleen kopurua gehituz doa

Pasa den asteazkenetik zabalik dago Monterronen pintura erakusketa. Bertan urtean zehar pintura klaseetan izan diren ikasleen lanak ikus daitezke, ume eta helduen lanak. Cesar Cimiano da bertako irakaslea eta urteko balantzea egiteko berekin egon gara berbetan. Ikastaroa urrian hasi eta ekainean amaitzen da. Kurtsuaren hasieran 10.000 pezeta matrikula ordaintzen da eta material batzuk izaten dira ikaslearentzat, oleoak ezik. Egunero ordu terdikoko klaseak izaten dira. Aurten 80 ikasle izan dira guztira, baina izena eman, gehiagok ematen dute. Klaseak emateko lekuaren bakarrik muga dela eta, 20 pertsona izaten dira klase bakoitzean.

Txikientzako, umeentzako, aurretik programa bat egiten da, baina nagusiei al-



diz, froga batzuk egiten zaizkie, hasi baino lehen bakoitzaren maila ezagutzeko. *"Hasiera batean denek nahi zuten oleoarekin hasi, baina froga bat egin ondoren marrazten, tintatzen, akuarela eta beste teknika guztiak ikasten joan dira"*. Horrez

gain, teoria pizkat ere ikasten da, baina ez asko, jendea praktikatuz joaten bait da.

Ikasle bakoitzaren eskua marrazki bakoitzean igartzen da baina hala ere gehienetan argazkiak kopiatzen dira, eta baita bertako parajeak, gauza klasikoak, popularrak.

Ikasle guztien %60a umeak dira, eta laster igartzen da horietan esku ona nork duen. Esatebaterako ume batzuk bodegoi eta beste paraje zoragarri batzuk egin dituzte, erakusketan ikusgai daudenak. Beraz batzuen esku ona igartzen da.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

SLIMMING EMAKUMEEN GIMNASIOA

ESKAINTZA:

Gimnasia aktiboa/ Ikastaroak: aerobic-a, jazz-eko lehen urratsak, dantzako lehen urratsak, diskoa, erritmoa, gimnasia pasiboa eta masaia.

Irakaskuntzako kalitatea eta kalitate profesionala

Arreta pertsonalizatua.

Deitu arratsaldez 77 01 87 tfnora. ERGUIN 3 etxabea. ARRASATE

◆ **Pablo Uragaren erakusketa**

Atzo, osteguna zabaldu zen Arrasate erakusketa aretoan Pablo Urangaren erakusketa. Bere marrazki eta bere bizitzarekin lotuta dauden argazkiak ere ikusgai daude. Guztira 20-25 kuadro izango dira. Arrasateko herriarekin lotura asko izan zuen Pablo Urangak, izan ere Juan Bataitzailearen elizan 1915an bi fresko handi utzi zizkigun. Beharbada interresgarriena Moises-ena izango da.



“Procesion de Elgueta”, “Los Aizkolaris de Bergara”, “La Romeria de San Josepe de Mondragon”, “Fiesta”, “Caserio” edo “Cocina Vasca” artelanetan, kostunbrismo etnografikoa landu zuen, eta beste batzutan aldiz, bere teknikarik personalena agertuko du.

◆ **Pintura erakusketa**

Aste honetan Monterronen pintura erakusketa zabaldu da. Bertan urtean zehar Monterronen izan den ikastaroetako ikasleen lanak ikus daitezke. Ikasturtearen amaiera dela eta antolatu dute erakusketa hau.

Berrogeita hamar urte baino gehiago darama Bixentek marrazten. Denbora librean marrazteaz gain, erakusketa, eliza eta antzerako gauzarako kartelak ere egiten ditu.

— **Kartel bat egiteko orduan zertan pentsatzen duzu?**

— Niretzat kartel batek erakargarritasuna izan behar du bista batez, hau da, urrutitik ikusi behar da eta hori lortzeko erabili behar diren teknikak dira aukeratu behar direnak.

— **Zeintzuk dira zuk erabiltzen dituzunak?**


— Batez ere koloreak inportantzia handia du niretzat. Kolore bizi eta ikusgarriak erabiltzen ditut. Horretaz gain, segun kartelak zertarako diren, gaia kontutan hartzen dut, elizarako edo Udaletxeko erakusketa bat bada, gaia kontutan hartzen dut eta horren arabera koloreak eta bestelako datuak aukeratzeko ditut.

— **Zenbat denbora behar izaten duzu kartelak egiteko?**

— Segun zelakoa den. Elizarako egin dudana azken kartela egun batetik bestera egin dut eta gainera nire ustez kolore biziak jarri dizkiot eliza baten jartzeko.

Bixente Sagasta

Denbora librean kartelgile



Kartel bat egiteko, eskatzen dudana gauza bakarra aurretik denboraz esatea da. Horretaz gain, letrak sartzen ditudanean denbora gehiago behar izaten dut.

— **Gaur egungo estiloei buruz zer iritzi duzu?**

— Nire ustez ez da kartel egile asko ezagutzen. Beharbada egongo dira baina lehen gehiago ikusten ziren. Eta gainera, ez dago

ikasteko tokirik ere. Lehen bai, hainbat eskola ikusten ziren eta garai batean nik ere ematen nituen klaseak; orain ez da horrelakorik ikusten, nik behintzat ez. Estiloei buruz, asko daude, era guztietakoak. Nik batez ere liburuetatik ikasi dut asko eta horretaz gain, gustatzen zaizkidan gauzak, letra estilo desberdinak eta abar, moztu egiten ditut.

— **Kartel bat egiteko marrazten ondo jakin beharko da, ezta?**

— Bai, oinarritzko ezagupen batzuk izan behar dira, kontrasteak, koloreak eta abar. Gainera, berez izan behar da kuriozoso eta gauza berriak irteten direnean kontu handia izan, interesa jarri ezagutzeko eta zer diren jakiteko.

— **Gaur egungo joerak ezagutuz, nola ikusten dituzu geroako kartelak?**

— Egia esan, gaurko estilo eta kartel egileen joeran ez dut jarraitasunik ikusten. Ez nago oso sartuta mundu horretan eta ez ditut asko jarraitzen gaur egungo joerak, baina hala ere ez dut lehen ikusten zen jarraitasunik ikusten. Gazteek ez dute lehen jartzen zen interesa jartzen, behintzat hori da nik ikusten dudana.



“Kartelgileen aldetik ez dut jarraitasunik ikusten”

ITSASKI

arrandegia

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate 79 98 94



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 etxabea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Aste gazte


"Behin, 10 urte nituela, etxetik hanka egin nuen. Estalpetik bizikleta hartu eta pedalei eragiteari ekin nion hirian zehar, eguzkiaren direkzioan, inoiz ez itzultze-ko erabakia hartuta".

Harry Mulish
"Dos Mujeres"

Oporraldia

• Euskal komunitate autonomoko AUZOLANDE-Gletarako plaza batzuk geratzen dira, 18 urtetik gorakoentzat. Modalitate ezberdinak: ekologia, etnografia, herreraikuntza. Uztailaren 2. hamabostaldi nahiz abuzturako.

• Gipuzkoako Diputazioak 15-17 eta 18-29 urte bitarteko gazteentzako udako ekintza programa zabal bat prestatu du. 6 egunetako egonaldiak, kirola eta naturaz gozatzeko aukera ezinhobea: ibilaldiak, espeleologia, itsas-iharduerak, mountain-bike, rafting, piraguismoa...



Belagoan, Guaran, Ainsan, Linza Haranean... Preziak: 10.000-18.000 PTA bitartekoak. Izena emateko epea zabalik.

"Gazte ekintzak"

• Besaidek antolatzen duen egitarau honen barruan, uztailaren 10-12an Bidarra irteera bat egingo da. Programa: bertako inguruak ezagutu, Itsusiko zirkotik zehar mendi-irteerak, e.a. Izena emateko epea zabalik.

Ikastaroak

• IV. Adierazpen eta sormen udako ikastaroak. Abuztuak 24-28 Bilbon eta Abuztuak 29-30, Larraulen. Ikastaroak: Clown-a, mimoa, txotxongiloak, gorputz adierazpena, sormena lantzea, ikuskizunak, dantzak, eta hitzaren zilargin bezala. Matrikula-prezioa: 5.500 PTA.

Epea: Uztailaren 30erarte.

Gasteizko XVI. Jazzaldia

• Uztailak 14-18: Mendi-zorrotzako kontzertuez gain, XXI. mendeko jazzaren Prinsipal antzokian, Jazz-Kuba Gazteiz hotelean eta jazz-a kalean.

Musika eta musikoterapia

• Uztailak 20-24: Musikoterapiari buruzko Europako VI. Mintegia, Gasteizen. Ikastaro ezberdinak, goizeko 10etatik ordu 2etara. Ikasle eta langabetuentzako matrikula-prezioa: 13.000 PTA.

Lehiaketak

• Aretxabaletako aire zabaleko VI. margo lehiaketa. Uztailaren 5ean (igandea). Teknika libre. Gaia: Aretxabaleta eta bere inguruak.

Sariak: 35.000, 28.000, 20.000 PTA eta trofeoak.

• Komiki eta Moda-diseinu V. lehiaketak. 30 urtetik beherako gazteei zuzendua. Sariak: modalitate bakoitzeko 100.000, 50.000 eta 25.000 PTAko sariak. Epea: uztailak 15.

• "Villa de Sonseca" XIII Literatur Lehiaketa. 2 modalitate: poesia (150-300 lerroko lanak) eta narrazioa (gutxienez, 3 orrialde). Gai libre. Gaztekeraz. Sariak: modalitate bakoitzeko 30.000 PTAko sari bat eta 20.000 PTAko akzesitak. Epea: Uztailak 15.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



IRAKASLE ESKOLA
Eskoriatza
Gipuzkoa

Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:

1992-93 ikasturterako matrikulazio-epa zabalik dagoela

ESPEZIALITATEAK

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

BIGARREN DIPLOMATURAK

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40
Ordutegia: 9-13

ETXEBIZITZAK

- Etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Merke eta ona. Tfnoa: 79 21 09 Aitor.
- Urbe auzoan lokala alokagai. Dei egin goizez 79 84 37 tfnora.
- Etxea salgai. Terraza, garajea eta ganbara ditu. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 45 74.
- Bi oheko logela alokagai. Tfnoa: 79 07 73.
- Urte baterako pisua alokatu nahi dugu. Dei egin 6etatik 10etara 77 02 42 tfnora.
- Munar auzoan pertsona bat behar da pisua osatzeko, bere gela edukiko luke. Pasatu eguardian edo gaez Munarreko Aragoi kaleko 4, 5. eskumatik.
- Uztailen buhardila alokatzen da oso merke Zarautzen. Tfnoa: 13 07 80.
- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- Uztailan eta abuztuan Lloret de Mar-en etxebizitza alokatzeko dago. Tfnoa: 79 75 67.

LANA

- Frantsesezko klase partikularrak behar dira. Dei egin 8,30etatik aurrera 79 09 24 tfnora.
- Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 15 56.
- Emakumea etxeko lanak egin, eskailerak garbitu edo umeak edo nagusiak zaintzeko gertu dago. Dei egin goizeko 9.30etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.

- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko euskaraz dakien emakumea behar da. Gasteizen egingo luke lana. Ondo ordainduko nioke. Dei egin 72 39 73 tfnora.
- Klase partikularrak ematen dira ekaina, uztaila eta abuztuan. Euskaraz edo erdaraz. Goizez eta arratsaldez. Ingelesa ere bai. Tfnoa: 79 93 03.
- Zortzigarren mailara arte edo, euskarazko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 39 23.
- Esperientziadun neska abuztuan harategian edo urdaitegian lan egiteko prest. Dei egin 3ak aurretik 79 97 52 tfnora.
- Klase partikularrak ematen dira uztailan. EGB, euskara eta ingelesa. Tfnoa: 79 90 08.
- Zientzietako klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 25 37.
- Fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen dira. Abuztuan ere bai. Tfnoa: 77 13 95.
- Uztailan marrazketa geometrikoko klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 52 93.
- Andra euskaldunak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 37 68.
- Ekonomiazko klase partikularrak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 32 54. Iñaki.
- Gasteizen umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. Tfnoa: 72 39 73.

SALEROSKETAK

- Allure modeloko Alpen Kreuzer karro-denda salgai. Gutxitan erabilitakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- Trikitixa soinua erosi nahi dut. Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurte.
- Salbat labea, arko izozgailua eta izozkien bitrina salgai. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.

- DENON markako bi moduloko anplifikadorea eta 2x200 W irteera analogiko eta digitalak salgai. Dena oso prezio onean. Ez galdu aukera!! Tfnoa: 79 47 90. Javi.
- Honda PX-R salgai. 56.000 PTAtan. Irailera arte badiu segurua. Tfnoa: 79 26 16.
- Erabili gabeko erantzule automatikoa salgai. Prezio ona. Tfnoa: 77 03 69.
- McKinley markako kanping-denda familiarra salgai. Tfnoa: 79 45 39. Edurnegatik galdetu.
- Klarinete berri-berria salgai. Tfnoa: 79 34 79.
- R-5 Turbo egoera onean salgai. Extra asko ditu eta oso prezio ona (800.000 PTA). Tfnoa: 79 03 67. Juan Ramon.
- Orbea Monkaio karrerista txirriindua salgai. Dei egin 8etatik 9etara 79 23 56 tfnora.
- Ineska markako karro-denda oso egoera onean salgai. Dei egin gauetan 79 94 26 tfnora.
- Udarako kotxea! Renault 4 salgai. Dei egin eguardietan 79 02 10 tfnora.

DENETARIK

- Ezkontzako urrezko eraztuna aurkitu dut. Zurea bada dei egin 79 83 43 tfnora.
- Duela bi aste perladun urrezko belarritakoak galdu nituen. Topatu badituzu dei egin gaueko 10etan 79 21 03 tfnora.
- Larunbata 23an Eskoriatatik Arrasatera auto-stopetan etortzean kiroletarako erropak autoan utzi zenituen mutiko horri: Etorri bila Arrasate Pressera.
- Ordulari bat aurkitu nuen Zigarrolako jailetan. Galdu duenak dei dezala 79 26 17 tfnoa.



ARRASATEN HILDAKOAK



Mari Karmen Larrañaga Telleria,
ekainaren 16an. 43 urte.

Leonor Alonso Misas,
ekainaren 20an. 79 urte.

Pedro Uranga Mendizabal,
ekainaren 21ean. 65 urte.

Miren Izaskun Aramendi Marin,
ekainaren 25ean. 41 urte.

Felisa Leon Borreguero,
ekainaren 28an. 84 urte.

Anton Otxandiano Berezibar,
ekainaren 29an. 58 urte.

Zeilia Aceña Martinez,
ekainaren 29an. 65 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Pedro Otxoa

Kobate harrobikoa

- **Jende gaztea ala zaharra?** Bietatik baina batez be gaztea.
- **Broma ala seriotasuna?** Segun ze kasutan, biak dira beharrezkoak.
- **Komikia telebista ala paperean?** Paperean askoz be gehiago gustatzen zaizkit.
- **Musika klasikoa ala rock-a?** Klasikoa.
- **Lehenengo baserria ala gaurkoa?** Lehengokoak ziren benetakoak.
- **Afari bat egiteko sozidatean ala tabernan?** Sozidatean.
- **Minik txarrena?** Zorionez, aspaldi ez dut izan halako min handirik.
- **Gustoko duzun ofizio bat?** Nirea da gehien gustatzen zaidana.
- **Gau pasa gustokoa duzu?** Lehen egiten nituen baina gero eta gutxiago egiten ditut.
- **Publizitatearen aldekoa zara?** Bai, neurri baten barruan ona da.
- **Ferixa zalea?** Ez, inoiz ez dut izan ferixetara joateko ohiturarik.
- **Maitasuna ala dirua?** Maitasuna, jakina.
- **Antzerkia ala pelikula bat?** Pelikula on bat hobe.
- **Egiten duzun kirol bat?** Egia esan ez dut denbora asko kiroletarako. Lehen gehiago praktikatzen nuen.
- **Janari izoztuak ala freskoak?** Freskoak.
- **Gustoko duzun janari bat?** Nire amak prestatzen dituenak.
- **Seme-alaba kopuru ideala?** Bi edo hiru ondo dago.
- **Psikologoengan sinismenik?** Segun ze kasutan, bai.
- **Egun zorientsuena?** Nire ezkontzako eguna.
- **Eta tristeena?** Nire aita hil zen eguna.
- **Egunkarian gehien irakurtzen duzun atala?** Ia denak irakurtzen ditut antzera xamar.
- **Ume batentzat opari bat?** Jostailuzko kamioia.



Bertsotan

Telebista

1
Uda heldu da eta horrekin telebistan aldaketa: bost pelikula egunero ta beste hainbat lehiaketa horrela behintzat ez du merezi jartzea gure arreta dexteena den programarikan sekula ez dago eta.

2
Udan nagusi izanagatik umore eta algara hori lortzeko sortzen dizkigu telebistak hainbat traba. Ez al da hobe kaxa zahar hori alde batetara laga bestela laster danok erabat zoro bihurtuko gara.

SAIOA ARANDO



MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

IZAGIRRE

barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86



Valladolid, 1923



B

izikleta gaur ere modan egon arren, ez da atzo goizeko

kontua. Orain jakin ez, baina garai baten militarrek ere bazuten Txirrundulari sekzioa, Sección Ciclista. Aste honetako erretratu biak 1923an atera ziren Valladolideko Capitanía General-ean eta bota altuekin eta puruarekin

dotore ageri dena Manuel Uriarte arrasatearra da. Garai hartan etxetik 50 PTA bidaltzen zizkieten hileru eta hango jaun eta jabe zela esaten du berak. Zinea hiru xemeiko kostatzen zen, hortik kontuak atera.

Taldeko argazkian eskumatik hirugarrena da Manuel eta beste guztiak "kastillanoak ziren". Bizikletak Dall markakoak Manuelek gogoratzen duenez.

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria


Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Dantzan egiten duena
8. Arrasateko kalea
9. Hi
10. Aldeko kontsonanteak
12. Artez osatutako basoak
14. Itsas trikua
15. Udaldiko jantzi
16. (Ald.) jatorri atzizkia
18. Laxotu

Bertikalak

1. Debalde
2. Euritako
3. Nabigazio jakintza
4. Talioa
5. Zornatu
6. Ahariaren emeari
7. Eguzkiaren jainko egiptiar
11. Ukitu
13. Alkoholdun edari gozo
17. Astatoa



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Ostiral Musikala

Ostiralean 21.20etan

Marta Izagirrek ostiral honetan bukatzen du bere programa. Zerrendan zituen musikarien kopurua bukatutzat ematen du eta hori dela eta, beste musika mota eta beste aurkezle batzuei uzten de bere tokia. Programa amaitzeko dantzariak aukeratu ditu eta hor izango ditugu Lore Gazteak eta Txixikuko partaideak. Ondo jarraitu eta hurrengo arte, Marta!

ATBketan

Gure lehiaketa honetan umorea eta barreak izango dira nagusi

Ostegunean
9.20etan

Ostiral Musikala

Arrasateko dantzariak protagonista

Ostirala
9.20etan.

San Juanetako Errepikapena

Astelehena 9.20etan
Asteartea 9.20etan
Osteguna 9.20etan

Telebegi

Normalean telebistarik ikusten ez dugunok (nahiz eta bigarren lanbidetzat eduki) ez dugu ondo hezita izaten harekiko oreka. Esan nahi dut "neurria" ez dugula —dudala— ondo gordetzen, eta inoiz telebistaren aurrean suertatzen bagara, luze egon gaitzke haren aurrean, begiak izkutuko lokarri batekin lotuta baleude bezala: Dragoi bola - Berriak - Telediaro 2 - ATBketan - Herriko Plaza ... Eta denbora guztian urrutiko manduari eragiten, besaulkitik jaikitzeko beharko nitzukeen indarrak ezin inondik bilduz...

Eta, azkenean, lo premiaz bultzatuta eta sonanbulo baten gisara ohera joango gara, ondo jakin barik zertarako erabili - galdu- dugun hainbeste denbora "Kutxa Ergelaren" aurrean. Bestela egingo genukeena baino lo gutxiago eginda, askotan galdetzen diot neure buruari ea zerbait ikasi dudan denbora guzti horretan. Erantzun nagusia, noski, ezezkoa izaten da. Zertarako arraio galtzen dugu denbora hain modu miserablean, adiskide edo senitartekoekin hitzegin beharrea eta giza harremanak sendotzen joan beharrea?

Norvegiako telebista ofizialak bere emanaldiak moztu egiten ditu astean arratsalde-gau batez, jendea kalera irten dadin eta hitzegiteko modua izan dezan. Horrelako deskretuen beharrik gabe, egin dezagun guk gauza berea.

KOLDO RODRIGUEZ

Programazioa

6

ASTELEHENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Hurbileko albisteak zure esku.

9.20etan **San Juanetako programazioa**. Joan zen osteguneko ATBketan gogoratzeko aukera.

8

ASTEAZKENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Hurbileko albiste eta informazio zehatzak.

9.20etan **San Juanetako programazioa**. 26ko ATBketan ikusteko aukera.

9

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albistegia.

9.20etan **ATBketan**. Talde berriak eta etapa berria. Aurreko txandaren finala erabaki ondoren, ikusi egin behar zer egiten duten oraingoan datozen talde berriek.

7

ASTEARTEA

8,8.30 eta 9etan, **Berriak**. Azken orduko informazioa eskainiko dizkizuegu.

9.20etan **San Juanetako programazioa**. 26ko Magazinen errepikapena.

10

OSTIRALA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Eguneko albisteak eza-gutzeko aukera.

• 9.20etan. **Ostiral Musikala**. Marta Izagirrerren saioari agur esateko Arrasateko dantzariak izango dira platoan.

Belaunaldi berri baten bultzada.

Ikusmina handia zeh.

Hala ere, Renault 19ak dena gainditu du. Errez gainditu ere.

Eta ez diseinu eta potenziaren arloan bakarrik. Agerian dago 16 balbulakoaren aurrekaldea ikusi edo bere 137 CVen indarra martxan ikuste hutsarekin.

Gainera, segurtasun eta ekologia gaietan, gidarien belaunaldi oso batek jarritako esigentziei ere erantzun die.

Ingurugiroa babesteko konpromezua hartu du, 95 eta 137 CVko katalizatzailekun gasolina injeziozko bere bi motoreen bidez.

Segurtasun sistema aktibo eta pasiboak sartuz. ABS, altuera moldagarriko gerrikoak eta umeentzako eserlekua atzeko jarlekuan integraturik.


Eta guzti hori, bere kategoriako auto batek baino izan ezin duen konfortari uko egin barik.

Edozein bartsiotan: 3, 4 edo 5 ate eta Cabriolet.

Belaunaldi berri baten bultzada guztia sentitu nahi baduzu, sar zaitez Renault 19 berrian.



RENAULT 19 BERRIA
Zutaz harro!



MECA, S.A.

Araba Etorbidea z/g. ARRASATE